

## AKTA

### EMF-REN OHIKO BATZAR OROKORRA

Elgoibarren, 2017ko apirilaren 8an, 10:30ean, eratu da bigarren deialdian EMFren Ohiko Batzar Orokorra.

EMFko presidente José Ramón Alonso da batzarreko buru, eta idazkari-lanetan, berriz, EMFko idazkaria den M<sup>a</sup> Carmen Merino aritu da. Bileran izan dira, halaber, Zuzendaritza Batzordeko kide hauek ere: Leire Salazar (presidenteordea), José Antonio Arriola (diruzaina), Alberto Montoya (Segurtasun-ataleko kidea) eta David Alday (Mendi-ibilien eta Ingurumenaren ataleko kidea).

#### **PARTE-HARTZAILEAK:**

##### **KLUBAK:**

**Araba:** GAZTEIZ M.T. ETA ZUIA M.T.

**Bizkaia:** ALDATZ GORA M.T., BASKONIA M.T., DEUSTUKO MENDITARRAK, EGUNTSEIA M.T., ENKANTERRI M.E., GAILURRA M.T., GANERANTZ M.T., GANZABAL M.T., GOIGAIN M.T., GOIKO MENDI G.A., JUVENTUS S.D., UNTZA M.T.

**Gipuzkoa:** AIZKARDI M.E., ARALARKO ADISKIDEAK, BESAIDE M.E., GORLA A.T., IRUNGO M., MONTAÑEROS ANTIGUO S., UZTURRE C.A.

Guztira: 21 klub, boto eskubidearekin; 42 boto guztira.

##### **KIROLARIAK:**

José Ramón Alonso, Ainara Aparicio Arronategui, Domingo García Valero eta Joseba Undurraga Bidasolo.

Guztira: 4 kirolari 4 botorekin.

##### **TEKNIKARIAK:**

Antxon Burcio Martín (teknikari bat boto batekin).

Idazkariak ongi etorria eman die bertan bildutakoei, eta euren parte-hartzea eskertu die. Batzarrean, boto-eskubidea duten honako hauek bildu direla jakinarazi du: 21 klub, kirolarien estamentuko 4 ordezkari, eta teknikarien estamentuko ordezkari bat, 47 boto guztira; eta, horiez gain, 3 gonbidatu ere bertaratu dira (botorik gabe).

#### **BATZARRA ERATZEA:**

Presidenteak azaldu du batzarra balio osoz eratu dela, idazkariak emandako datuak kontuan hartuta eta Federazioaren Estatutuetako 23. artikuluan jasotakoarekin bat etorrita. Ondoren, deialdiko gai-zerrendako gaiak aztertzerako jo da, eta, EMFren Estatutuetako 22. artikulua jasotzen duenarekin bat etorritik, jakinarazi da ez dela jaso gai-zerrendan aztertzekeo bestelako gairik.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

[www.emf-fvm.org](http://www.emf-fvm.org)

### ***1.- 2016ko azaroaren 19an egindako Ohiko Batzar Orokorren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.***

Aho batez onartu da 2016ko azaroaren 19ko batzarreko akta, deialdiarekin batera guztiei bidali zaiena.

Juventus Klubak hala eskatuta, batzarrean izandako klub en zerrrenda jasotzen duen eranskina txertatuko da.

### ***2.- Lehendakaritzaren txostena***

Zuzendaritza Batzorde berria aurkeztu du presidenteak, eta Alberto Montoya Segurtasun-ataleko kide izango dela jakinarazi du, eta David Alday, berriz, Ingurumen batzordeko kide izango dela. Zuzendari teknikoak eta lurralde-federazioetako lehendakariak ezin izan dutela bertaratu azaldu du.

Jakinarazi du antolatzaileak, Sorospen Taldeak, erabaki zuela eskiko zeharkaldia bertan behera uztea, haiek proposatutako boluntario bat onartu ez zuelako Zuzendaritza Batzordeak eta erabaki horrekin bat ez zetozelako. Sorospen Taldeak, eurek proposatutako kidea ez zela onartu ikustean, Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi zion jarduera antolatzeari uko egiten ziola.

Zuzendaritza Batzordeak hitzarmen berri bat egin du Helvetiarekin, lau urterako, hau da, Zuzendaritza Batzordearen agintaldirako (2016-2020), 21.000 €-ko zenbatekoaren truke (federazioko txartelak igortzeaz gain). Hau da zenbateko horren banaketarako proposamena: % 50 EMFrentzat, eta % 50 hiru lurralde-federazioetako proiektu komunitarako.

EMMOAren ordezkariarekin elkartu da Zuzendaritza Batzordea, eta digitalizazioa eta artxiboen lekualdaketa egiteko dituzten zailtasunak azaldu dizkiote haiek; xede horretarako, laguntza eskatu diote EMFri.

Azkenik, Zirkuiterako arduradun bat aurkitu behar dela esan du. Gaur egun gai horretaz arduratzen den pertsonak ardura hori utzi egin nahi du, laguntzeko prest dagoen arren: ILlen egutegiaren barnean probaren bat antolatzen duten klub guztiei jakinarazi zaie arduradun bat behar dela, baina ez da inolako erantzunik jaso.

Gipuzkoako teknikarien ordezkariak hartu du hitza, eta esan du ez duela ulertzen zergatik ez dioten zeharkaldian boluntario gisa laguntzen utzi, ez baita kontraturik sinatzen, ordainsaririk jasotzen ez denez; kilometroa soilik ordaintzen da. EMFrentzat gai horiek kudeatzen dituen aholkularitzako ordezkariak erantzun dio boluntariotza ere kontratazio-modu bat dela.

### ***3.- 2016ko kontabilitatearen itxiera***

Diruzainak 2016ko ekitaldiko kontabilitatearen itxierari dagozkion diru-sailen berri eman du xehetasun osoz pantaila baten bidez; batzarreko deialdiarekin batera bidali zaie batzarkide guztiei txostena.

Lehendabizi, diru-egoerek normaltasuna islatzen dutela azaldu du. Aurrekontuetako zifrak kontuan hartuta, lizentziengatik diru-sarrerek nabarmen gora egin dutela jakinarazi du. Aurreikusitako kirol-jardueren finantzaketan gorakada bat itxuratzen du horrek. Gainera, *Pyreinaica* aldizkariaren finantzaketa aurreikusitakoa baino merkeagoa izan da, % 20 gutxiago, gutxi gorabehera.

Ezohiko gastuak oro har bi sail izan direla azaldu du: kobratu ezinezko diru-sarrera batzuk eta Donostiako Udalaren zigor bat justifikatzea.

Gipuzkoako teknikarien ordezkariak hartu du hitza, eta ekitaldiko kontuetan haren kalte-ordaina ez dela azaltzen esan du. Horretarako diru-funts bat zegoela garbi azaldu zela aurreko batzarretan erantzun dio Egunsentiako ordezkariak. Era berean, Aholkularitzako ordezkariak haren kaleratzearen ordainsarirako urtez urte dirua gorde dela eta ekitaldi honetan funts hori desagertu egin dela azaldu dio.

Bozketa egitera jo da, eta honako hau da emaitza:

**ABSTENTZIOAK: 1**

**EZ: 4**

**BAI: 42**

Gehiengoz onartu da.

#### ***4.- Jardueren egutegia***

Presidenteordeak jardueren egutegia azaldu du, eta eskerrak eman dizkio Club Vasco de Camping elkarteari 2017ko Mendizaletasunaren Gala antolatzeagatik. Era berean, eskiko kopa guztiak egin direla jakinarazi du. Amaitzeko, azaldu du haurren martxa, beteranoena eta 2018ko Gala antolatzeko prest egongo diren klubak behar direla.

Besaideko ordezkariak hitz egin du, bilera bat egitea eskatzeko, eta monolitoa nahiz inguruak berriitu beharra dutela esan du.

Presidenteordeak erantzun dio hiru klubekin elkartzekotan zirela, berritze-lan horiek aztertze eta Oroipen eguna antolatzeko. Jakinarazi dio 2017ko ekitaldi honetan diru-sail garrantzitsu bat bideratu dela xede horretarako.

2017ko jardueren egutegia onartzeko bozketa eginda, eta aho batez onartu da.

#### ***5.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpena***

Presidenteak azaldu du Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpena jaso dela, Federazioko Zuzendaritza Batzordearen hauteskunderen aurka jarritako helegiteari dagokiona. Organo horrek legez kanpokotzat jo du Joseba Ugaldereen hautagaitza, hark proposatutako zerrendak ez baitu emakume eta gizonezko mendizaleen haztapen egokia (zehazki, ez zegoen emakumerik zerrenda horretan).

Gipuzkoako teknikarien ordezkariak ahal izanez gero ebazpena bidaltzeko eskatu du.

Presidenteak azaldu dio aurrez helegiteak jarri dituenarekin kontsultatuko duela, eta, hark baimena ematen badio, bidaliko zaiola.

Gasteiz klubak eskatu du ahalegin guztiak egiteko eskiko zeharkaldia desager ez dadin, eta klubak ARITU programarekin eta zenbait klubaren informazioa iraultzeko dituen arazoak azaldu ditu. Eskiko zeharkaldiari dagokionez, mahaiak azaldu du datorren denboraldian zeharkaldiarekin jarraitzeko antolatzaile bila dabilzala. Federatuen plataformari dagokionez, gogora ekarri du aurreko Zuzendaritza Batzordeak diru kopuru bat eman zuela programa aldatzeko eta, horrela, zeuden akatsak zuzentzeko eta eguneratze zehatz batzuk ezartzeko.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

[www.emf-fvm.org](http://www.emf-fvm.org)

Zuia klubak galdetu du irailerako prest egongo den.

Ahalik eta azkarren egin nahi dela erantzun zaio.

Gipuzkoako teknikarien ordezkariak batzar honetako deialdia zergatik ez zaion iritsi galdetu du. Presidenteordeak erantzun dio jakinarazpena haren posta elektronikoak atzera bota zuela, eta posta elektroniko zuzena emateko eskatu dio.

Gai guztiak aztertuta, amaitutzat eman da Ohiko Batzarra, eta 15 minutuko atsedeen bat egin da Ezohiko Batzarra hasi aurretik.

Sinadura: Jose Ramón Alonso  
EMFko presidentea

Sinadura: Maria del Carmen Merino  
EMFko idazkaria

## AKTA

### EMF-REN EZOHIKO BATZARRA

Elgoibarren, 2017ko apirilaren 8an, 12:30ean, EMFren Ezohiko Batzarra eratu da.

EMFko presidente José Ramón Alonso da batzarreko buru, eta idazkari-lanetan, berriz, EMFko idazkaria den M<sup>a</sup> Carmen Merino aritu da. Batzarrean izan dira, halaber, Zuzendaritza Batzordeko kide hauek: José Antonio Arriola, Alberto Montoya eta David Alday.

#### PARTE-HARTZAILEAK:

##### KLUBAK:

**Araba:** GAZTEIZ C.M. ETA ZUIA M.T.

**Bizkaia:** ALDATZ GORA M.T., BASKONIA M.T., DEUSTUKO MENDITARRAK, EGUNTSEIA M.T., ENKANTERRI M.E., GAILURRA M.T., GANERANTZ M.T., GANZABAL M.T., GOIGAIN M.T., GOIKO MENDI G.A., JUVENTUS S.D., UNTZA M.T.

**Gipuzkoa:** AIZKARDI M.E., ARALARKO ADISKIDEAK, BESAIDE M.E., IRUNGO M., MONTAÑEROS ANTIGUO S., UZTURRE C.A.

Guztira: 20 klub boto eskubidearekin; 41 boto guztira.

##### KIROLARIAK:

José Ramón Alonso, Ainara Aparicio Arronategui, Domingo García Valero eta Joseba Undurraga Bidasolo.

Guztira: 4 kirolari 4 botorekin.

##### TEKNIKARIAK:

Antxon Burcio Martín (teknikari bat boto batekin).

#### BATZARRA ERATZEA:

Ondoren, deialdiko gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo da, eta, EMFren Estatutuetak 22. artikulua jasotzen duenarekin bat etorriz, jakinarazi da ez dela jaso gai-zerrendan aztertze bestelako gairik. Hala ere, gai-zerrendatik puntu bat kentzeko eskatu da, "Ehun mendien araudia onartzea", hain zuzen; batzarkide guztiei bidali zitzaizen horri dagokion jakinarazpena.

Batzarkideei kontsultatu ondoren, horiek ados agertu dira puntu hori kentzearekin.

Azaldu du Mendi Lasterketen Batzordeko kide bat dagoela mahaian, araudian izandako aldaketak argitzeko. Hauek dira aldaketa horiek: proba konbinatua txertatu da, eta Euskal Herriko irabazlea izateko ezinbestekoa da Euskal Herrian erroldatuta egotea.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

[www.emf-fvm.org](http://www.emf-fvm.org)

Gipuzkoako teknikarien ordezkariak azaldu du ez dagoela ados beste toki batzuetan bizi direnek puntuatzeko aukerarik ez izatearekin.

Araudia aztertu duen Arbitroen Batzordeko kide dela erantzun zaio, eta batzar honen helburua aurkeztu den txostena onartzea edo baztertzea dela soilik, eta ez hori eztabaidatzea.

Botoa ematera jo da, eta honako hau da emaitza:

**Abstentzioak: 0**

**EZ:1**

**BAI:45**

Gehiengoz onartu da.

Gai guztiak aztertuta, Ezohiko Batzarra amaitutzat jo da.

Sinadura: Jose Ramón Alonso  
EMFko presidentea

Sinadura: Maria del Carmen Merino  
EMFko idazkaria